



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

Oharra BREXITA NEGOZIATZEKO 2. ERRONDAZ

Noiz: 2017ko uztailaren 17tik 21era arteko astean

EMAITZA NAGUSIAK

Bigarren saioa aldeetako bakoitzaren posizioak aurkezteko erabili zen. Lehen aldiz jorratu ziren gaiak sakon, konfiantzazko giroa sortzeko ahaleginean.

Adostasuna edo desadostasuna dauden puntuak zein diren identifikatu zen, aldean posizio argi bat dagoen gaietan (bereziki, E. Batua aldetik).

Herritarren eskubideak direla eta, EB, Europako Parlamentua eta E. Batua bat datoz lehentasun honetan.

Gogora dezagun E. Batuak posizio zehatza aurkeztu zuela herritarren eskubideez 2017-06-26an, eta horri esker EBk hurbiltasun eta urruntasun puntuak identifikatu ahal izan ditu.

Oro har, gai honetan alde biek heldu nahi duten puntu komun bat dago.

Hala ere, diferentziak daude, bereziki eskubide horiek bermatzeko moduari buruz, bai eta familiako kideen etorkizuneko eskubideak edo gizarte eskubideen bermea, bezalako gaietan, zehazki gizarte onura jakin batzuk esportatzeari buruz.

EBk uste du akordioak beharrezko ziurtasun juridikoa eman behar diela E. Batuak EB uzteagatik eraginpean dauden herritarrei. Erresuma Batuko EBko herritarren eskubideak EBko Justizia Auzitegiak babestu behar dituela aldarrikatzen du EBk.

Immigrazioari dagokionez, jarrerak gehiago hurbildu ezean, EBko herrialde batean bizi diren britainiarrek euren estatusa EBko beste edozein herrialdetan mantentzeko eskubidea gal lezakete. Izan ere, E. Batuak eskatu duen elkarrekikotasuna eskaintzeko, EBk argi utzi du E. Batuak bermatu egin beharko duela europar herritarrek euren estatusari eutsi ahal izango diotela aldi baterako jatorrizko herrialdera itzultzea erabakitzen badute (gaur egun, E. Batutik bi urtekoa baino kanpoaldi luzeagoa egiteak herritar "finkatu" modura eskuratutako eskubideak etorkizunean galtzea ekarriko luke).

Baina, zalantza barik, bigarren elkarrizketa erronda honetan aurrera egiteko oztopo handiena finantzen gaia da. E. Batuak onartu egin du EBren aurrean EB utzi ondoren ere erantzun behar duela eta bere finantza konpromisoak bete beharko lituzkeela. EBk uste du onarpen hori lehen urrats bat dela likidatu beharreko eginbehar finantzarioak identifikatze aldera.

Ordezkaritza bien arteko trukea "ordenamendu finantzarioaz" bereziki laburra izan zen. Dirudienez, EBren negoziatzaileak prestaturik heldu eta euren analisi juridikoa aurkeztu bazuten ere, David Davisek zuzentzen zuen taldea ez zegoen gauza bera egiteko moduan.

Azpimarratzekoa da EBk gai honetaz duen jarrera ezagutzera eman zuela 2017-05-29an argitaratutako dokumentu batetan; bertan,, E. Batuak EB utzi aurretik erantzun beharreko konpromiso guztien azterketa egiten da. Gainera, posizio hori uztailean aurkeztutako azterketa juridiko batek garatu izan du. Orain E. Batuari dagokio bere jarrera argitzea, finantza akordioari buruzko dossierrean negoziazioak hasi eta aurrerapen nahikoa lortze aldera, gainerako gaietatik ezin banatuzkoa baita.

Azken finean, E. Batuak EB uztean ordaintzeko prest dagoen gutxi gorabeherako kopuru bat ematen ez duen bitartean ez da aurrerapausorik egongo.

EBko negoziatzaile buruak mahai gainean kopuru biribil bat jartzea kostatzen ahala kostatzen saiestu duen arren, E. Batuaren eginbehar finantzarioen zenbatespena (EBrena) 75.000 milioi euro ingurukoa izango litzateke.

Jorrotutako azken gaia Irlanda izan zen. Lehen eztabaida bat izan zen Brexitek arlo garrantzitsu bitan nola eragingo ote zuen, hots, Ostiral Santuko Akordioetan eta Bidaia Eremu Komunean. Baina, oro har, gutxi aurreratu zen. EBk geldotasunaren errua E. Batuak gai bi hauek duen jarrera funtsik gabeari egozten dio.

Argi dago Ostiral Santuko Akordioek elkarrizketa xeheagoak behar dituztela. Bereziki, Irlandaren eta Ipar Irlandaren arteko lankidetzan sakondu behar da, bien arteko harreman ekonomiko eta sozialak Brexitarren negoziatzearen erroka bat baitira. Brexitarren ondoren E. Batua lankidetzan mantentzen nola saiatuko den argitzeko eskatu du EBk.

Bidaia Eremu Komunari dagokionez, EBren iritziz, EB utzi ondoren eremu horren ezaugarri bereziak nola mantentzeko asmoa duen ere azaldu beharko du E. Batuak.

Ondorioz, EBren arabera, bigarren erronda honen emaitzak ikusirik, oraindik desadostasunak adostasunak baino handiagoak direla dirudi. E. Batua, hala ere, baikorrago azaldu zen bigarren erronda honetan izan diren aurrerapausoez.